

Asisko gutuna

2011ko uztaila. 1. printzipioa. Egunero bilatzea

Jainkoarekin harreman pertsonala 33. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Asis Sarea eta Gutun hau elkarrekin banatzeko dira. Berau partekatzea gonbidatzen ditugu hartzaileak. Egintza xume eta garden batek, adibidez email bat bidaltzeak edo fotokopia bat eskura emateak eskain dezake pozaldi bat, argialdi bat edo ustekabeko galdera bat.

Gutun hau Asis Sareko lehen printzipioaren inguruan dabil: "Egunero, Jainkoarekiko harreman pertsonala landu". Era askotan, une

eta egoera ezberdinetan ibil gaitezke harreman horren bila.

Baina seguru aski oker genbilzke, harreman hau eguneroko bizitzatik aldenduriko esparruren batera murriztuko bagenu. Hain zuzen errealitateari eta arazoei begiratzea maitasunik gabe gelditzen zaigun momentuetan gonbidatzen gaitu gutun honek Jainkoarekin harremanean jartzera.

Gogoetarako gaia

Jainkoaren begiez begiratu

Bizitzako une eta egoera batzuetan ez dugu ezer ikusten, eta sentitzen dugu gaizkia dela denean irabazle. Giza izaera erabat mugatua eta irtenbiderik gabea ikusten dugu. Azpiratuak sentitzen gara, umiliatuak, guztiz atsekabetuak, itxituran sartuak edo mendekuzko irrikaz beteak. Badirudi joan egin dela argia eta ilunpea datorkigula gainera, eta ez dugula gaizkia besterik ikusten. Zer egin? Nolako begiz so egin etsaitzat daukagunari? Nola ez erori mendeku gogo eta haserre biziaren pean? Zein da hartu behar dudana jarrera, maitasunik ez datorkidanean edo are neure indar guztiez besteari kaltea opa diodanean?

Ikusten ez dugunean, begirada ailegatzen ez zaigunean, aurki ditzakegu Ebanjelioan beste bide bat irekitzen diguten hitzak. Jesusek Ebanjelioan hitz ematen digu, egiaren Espiritua jarriko duela gudan. Hitz horrek alda dezake gure ikuspuntua: Jesusek egiaren espiritua agindu badigu, jar gaitezke otoitzean, isiltasunean, adi-

adi geure baitan, eta beste ikuspuntu batetik begiratzen saiatu, "Jainkoaren begiez begiratzen" ahalegindu.

Nondik begiratuko ote lioke Jainkoak nire atsekabeari? Nola begiratuko lioke Jainkoak etsai gisa sentitzen dudana horri? Jainkoaren begiez begiratzeak, egiaren Espirituari adi egoteak, argia ematen digu, errukiaren bidean jartzen gaitu. Jainkoak ez du ez gaizkia ez atsekabea kentzen, baina hori dena beste toki batean birkokatzen du.

Gure begirada mugatua den arren, Jainkoak egiten digun begirada-modua egitera hurbiltzeak lagundu egiten digu, giza espiritura errukitik eta konprentsiotik urreratzen, eta barkamena ematera ere hurbiltzen gaitu. Ahalbidea ematen digu bestea bere mugatasunean ikusteko, eta iritsi gaitezke egin diguten kalteari garrantzia kentzera ere. Gure atsekabera Jainkoaren begietatik hurbiltzeak sendatu egiten gaitu, haren maitasunik gaizki guztia garaitu dezakeela sentitzen baitugu.

Ebanjelioko pasartea: Jn 8, 1-11

Jesus Oliamendira joan zen. Biharamunean, egunsentian, tenplura itzuli zen, eta herri guztia etorri zitzaion. Jesus, eseririk, irakasten hasi zen.

Orduan, lege-maisu eta fariseuek emakume bat, adulterioan harrapatua, ekarri zioten. Erdi-erdian ipiniz, esan zioten Jesusi:

–Maisu, emakume hau adulterioan ari zela harrapatu dute. Moisesek legean honelakoak harrika hiltzeko agindu zigun; zuk zer diozu?

Galdera azpikeriaz egin zioten, hura salatzeke aitzakiaren baten bila baitzebiltzan. Jesus, alabaina, makurturik, atzamarrez lurrean idazten hasi zen.

Haiek, ordea, galde eta galde ari baitzitzaizkion, zutitu zen Jesus eta esan zien:

–Zuetan bekaturik gabe dagoenak jaurti diezaiola lehen harria.

Eta berriro makurturik, lurrean idazten jarraitu zuen. 9 Haiek, ordea, hori entzutean, banan-banan alde egiten hasi ziren, zaharrenetatik hasita. Jesus bakarrik gelditu zen, emakumea aurrean zuela.

Jesusek zutitu eta esan zion:

–Emakume, non dira salatzaileak? Ez al zaitu inork ere gaitzetsi?

Hark erantzun:

–Inork ere ez, Jauna.

Orduan, Jesusek:

–Nik ere ez zaitut gaitzesten; zoaz, eta ez egin berriro bekaturik.

Frantziskotar espiritualitatea: Nire eta gure egia: Jainkoaren begirada

Giza joeraz besteek gutaz ondo hitz egitea eta gu balioztatzea gustatzen zaigu, eta giza joeraz errabia eta haserrea datorkigu gutxiesten eta juzgatzen gaituztenean. Baina gure egia eta duintasuna ezin da besteen begiradaren gorabeheretatik esekita ibili.

Asisko Frantziskok, beste behin ere, erdi erdian jotzen du zera esatean: "Gizakia Jainkoaren aurrean zenbat den, hainbestex da eta ez gehiago". Hori zera esatea bezala da: goraipatzen eta goresten nautenean ez naiz gehiago, eta mesprezua eta juzku txarra ematen didatenean ez naiz gutxiago. Jainkoaren begiradaren aurrean naizena naiz beti, eta ez besterik. Jainkoaren begirada da gure egia.

Frantziskok bere buruan zuen eskarmentua. Izan ere Asisen denen adiskide eta festetako errege izatetik, bizitzaz aldatu zuenean, juzku txarra eta mesprezua hartzera igaro zen; beste hainbeste gertatu zitzaion fundatu zuen Anaiartearekin ere: hasieran estimuz eta miresmenez ikusia izatetik, azkenean anaia "jakintsuek" epaitua eta baztertua izatera pasa zen.

Geure buruari eta besteei Jainkoaren begiradaz so egiteak egia eta zuzentasuna bermatzen du eta "atseden ematen arimari", zeren eta Jainkoaren begirada errukizkoa da beti, adore-emailea eta biziaren eta egiaren bultzatzailea. Geure buruari eta besteei Jainkoaren aita/ama-begiradaz so egitea, hara hor frantziskotar jakinduriaren sekretua.

138. salmoa

Jauna, zuk ikertzen nauzu eta ezagutzen:
badakizu noiz esertzen naizen eta noiz jaikitzen.
Urrutitik sumatzen dituzu nire burutapenak.
Ohartzen zara noiz nabilen eta noiz nagoen geldi.
Zehatz dakizu nire pauso guztien berri.
Oraindik ez dut hitza mihian
eta zuk, Jauna, badakizu esango dudana.
Atze eta aurre, estu bildua naukazu,
zeure eskua nire gain ezarrita.
Miragarria zure ezagutza, nitaz gaindikoa,
nik atzemateko garaiegia.
Nora joan zure espiritutik urruti?

Nora ihes egin zure aurretik?
Zerura igota ere, zu hantxe!
Hildakoen Egoitzara jaitsita ere, zu bertan!
Nahiz argiaren sorlekurantz hegaldatu,
nahiz mendebaldeko itsas mugetan kokatu,
han ere zure ezkerre gainean izango dut,
zure eskuinak helduko dit.
Nahiz nik esan: «Ilunpeak estaliko ahal nau,
egun-argia gau bihurtuko ahal zait inguruan!»,
ilunpea ere ez da zuretzat ilun,
gaua ere eguna bezain argi.

Gutuneko azken hitzak

"Maitatzea aukeratu ahal izateko askatasuna duenak dauka barkatzeko ahalmena, hau da, bere baitan uste duenak, maitasuna inportanteagoa dela jasandako zauriek sortzen duten atsekabe eta erresumina baino".

2011ko abuztuko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate abuztuko erreferentzia guztiak:


1 Mt 14,22-36	8 Mt 17,22-27	15 Lk 1,39-56	22 Mt 23,13-22	29 Lk 4,16-30
2 Mt 15,1-2.10-14	9 Mt 10,28-33	16 Mt 19,23-30	23 Mt 23,23-26	30 Lk 4,31-37
3 Mt 15,21-28	10 Jn 12,24-26	17 Mt 20,1-16	24 Jn 1,45-51	31 Lk 4,38-44
4 Mt 16,13-23	11 Mt 18,21-19,1	18 Mt 22,1-14	25 Mt 24,42-51	
5 Mt 16,24-28	12 Mt 19,3-12	19 Mt 22,34-40	26 Mt 25,1-13	
6 Mt 17,1-9	13 Mt 19,13-15	20 Mt 23,1-12	27 Mt 25,14-30	
7 Mt 14,22-33	14 Mt 15,21-28	21 Mt 16,13-20	28 Mt 16,21-27	

Oharrak

·Asis Sareari buruzko informazioa hartu nahi izanez gero, edo gutun hau hileroko hartzeko izen emateko, deitu 646-214896 telefono zenbakira edo bidali mezua asissarea@arantzazu.org helbide elektronikora.

·Asis Sarearen web gunean Gutun honen edukietan sakontzeko lanabes hau aurkituko duzu: "Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldea lan egiteko iradokizunak".

·Diru-ekarpenak egiteko kontu zenbakia: 0182 0326 15 0201516844 (BBVA).



Asis Sarea

www.asissarea.org

Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldean lan egiteko iradokizunak

Asisko gutuna

2011ko uztaila. 1. printzipioa. Egunero bilatzea

Jainkoarekin harreman pertsonala 33. zenbakia

Sarearen lehen printzipioan esaten zaigu landu dezagula, egunero, Jainkoarekiko harreman pertsonala. Era askotara egin dezakegu hori, baina gaur proposatzen zaigu harreman hori Jainkoaren begiradatik bilatzea. Denari Jainkoaren begiez begiratu eta geure buruari ere Jainkoaren begiez begiratu.

Jainkoaren begiez begiratu

Zein ezberdina izango litzatekeen mundua eta batez ere geure mundua, Jainkoaren begiez begiratu bagenio! Horixe egiten saiatuko gara hil honetan.

Has zaitez zeure bizitzari begirada bat ematen. Bila itzazu, gauzak zailak izan dituzun egoera eta momentuak, bai eta dena ondo zihoan uneak ere. Segur aski, egoera txarrak baino askoz gehiago izango dira onak, batez ere begiratzen dugun begien arabera.

Saia zaitez egoera horiek Jainkoaren begiez begiratzen. Nolakoa da begirada hori? Errukizkoa, kontsolamenduzkoa, xera eta maitezkoa? Begirada horrek nola laguntzen dizu bizitzan?

Bigarren unean bila itzazu zure bizitzan inportanteak izan diren pertsonak; uneren batean sufriarazi egin badizute ere, hazten eta heltzen eta pertsonago izaten lagundu dizutenak; eta begira iezaiezu Jainkoaren begi horiez.

Sumatzen duzu nola aldatzen diren zure besteekiko sentimenduak Jainkoaren begirada horretatik?

“Nik ere ez zaitut gaitzesten; zoaz, eta ez egin berriro bekaturik”

Testuaren axaleko interpretazio batek eraman gaitzake pentsatzera, Jesus emakume bekatiaren alde dagoela, nahi duena egiten duen pertsonaren alde, ohitura onak hautsi eta legearen kontra doanaren alde. Baina ez da horrela. Fariseuak ez doaz Jesusengana justizia egitera, segada bat jartzera baizik. Horrez gain beren moralismoa faltsua da: ez dute egiten besteei exijitzen diena.

Horregatik Jesus isildu egiten da, eta bere isiltasunetik egiaren ahotsa sortzen da. Ez da zalantzan jartzen legeak arrazoi duela, ez du zuzenesten emakumea; justizia Jainkoagandik datorrela

baieztatzen du baizik. Jainkoaren justizia errukitik eta maitasunetik sortzen dela.

Eta guk, zein erraz juzgatzen eta gaitzesten dugun. Egizu otoitz testuaren bidez, eta ikus ezazu nola aldatzen den zure besteei begiratzeko modua.

Nire egia, gure egia: Jainkoaren begirada

Orain arte gure besteenganako begirada landu dugu. Baina nola begiratzen diogu geure buruari?

Batzuetan lasakeriaz begiratzen diogu geure buruari, eta besteetan exijentziaz. Zein egoeratan egiten dut era batera edo bestera? Zer dago neure buruari begiratzeko era horien atzean?

Zein da nire erreakzioa nitaz esaten dutenaren aurrean? Gauza naiz nitaz esaten dutena onartzeko, gustatzen ez bazait ere?

Goazen geure buruari eta besteei Jainkoaren errukizko begiez begiratzera, gure bizitzeko eta sentitzeko modua nola aldatzen den deskubritzera.

San Frantziskok esaten du: “Gizakia Jainkoaren aurrean zenbat den, hainbestexa da eta ez gehiago”. Jainkoaren guganako begirada horretatik, goazen gure Harekiko harreman pertsonala bilatzera, Haren aurrean eta Harentzat garena izaten saiatzera.

“Jauna, zuk ikertzen nauzu eta ezagutzen”

Egin otoitz salmoaz, ireki zeure bihotza Jaunari. Hark ezagutzen zaitu eta ez duzu Haren aurrean itxurak egiten ibili beharrik. Eta Haren bitartez zeure burua ezagutu ahalko duzu, zeure buruari begiratzeko eta Haren erruki eta maitasunezko begiez besteei begiratzeko. Haren begiradatik soilik izango dira argituak zure ilunpeak, eta zure begiradak gero eta antz gehiago izango du Harenarekin.